



Ayuntamiento de OYÓN-OION
OYÓN-OIONgo Udala

UDALAREN OSOKO BILKURA Bileraren akta

2023ko azaroaren 15eko, asteazkeneko, bilkuran, akta onetsi zenean, egin ziren oharrak biltzen ditu.

Ohiko saioa

Data: 2023ko urriaren 11, asteazkena.

Ordua: 20:00.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion) alkate jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun-andre hauek elkartu dira Udaltzaren osoko bilkura egiteko: Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), , Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: Kontxi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), osasun-arazoak tarteko.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra bertaratu da saiora, idazkari gisa.

Saioa alkate-udalburuak deitu du, arauk ezarritako aurrerapenarekin eta publizitatea eginda, eta honako honen arabera:

Gai-zerrenda

1. 2023ko irailaren 13ko aurreko ohiko bilkurako akta onestea.

Ebazteko gaiak

2. **Hezkuntza, Obra eta Zerbitzu eta Ingurumen Batzordea (energia-jasangarritasunerako).**
 - 2.1. José Antonio Sarabia Morenoren zehapen-espeditzea, SanCan230724.
3. **Gizarte-ongizate, Berdintasun, Osasun eta Elkarte Batzordea.**
4. **Turismo, Gazteria eta Jai Batzordea.**
5. **Kultura, Euskara eta Kirol Batzordea.**
6. **Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea (Kontuen berezia)**
 - 6.1. 2024 ekitaldirako ordenantza fiskalen aldaketaren behin-behineko onespena.
 - 6.2. Bide publikoa mahai, aulki eta mahaitxoekin okupatzea arautzen duen ordenantza aldatzea.
 - 6.3. Barriobusto eta Labraza kontzejuek Oyón-Oiongo Udalaren zergetan parte hartzeko protokoloaren eranskina onestea.
 - 6.4. 5/2023 espeditzea, aurrekontua aldatzekoa.
 - 6.5. HAPOren 13. aldaketa egiteko herritarrek parte hartzeko programa onestea, OY-3 sektoreko lurzoru urbanizagarria desklasifikatzeari dagokionez.
 - 6.6. Oyón-Oiongo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 11. Aldaketa Puntuala. Antolamendu xehatuko eremua, oinarritzko azpiegituren eremua eta hondakin solidoak (H.4), ez arriskutsuak eta inerteak ezabatzeko azpiegituren zerbitzuen eremua zehaztu gabeko kategoriako lurzoru urbanizaezinean.

Udabatzaren 2023 - X - 11ko bilkuraren akta;



6.7. “Eraikin urdina” eraikinaren erabilera Fondo Formación Euskadi SLL enpresari lagatzea, profesionaltasun-ziurtagirien ikastaroak eman ditzan.

Udaleko gobernu-organoen kontrola eta fiskalizazioa

7. Irailaren 13tik saio hau deitu den egunera arte emandako alkatetzaren ebazpenak. Azken puntua) Galde-eskeak.

Bilkuraren izaerarekin eta gai-zerrendarekin bat etorritz, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira. Saioa grabatu egin da, 2023ko uztailaren 5eko saioan hartutako erabakia gauzatuz.

1. 2023ko irailaren 13ko aurreko ohiko bilkurako akta onestea.

Alkate jaunak aktari oharrak egitera gonbidatu ditu zinegotzi jaun-andreak. Ez dira egin.

Honako hau adostu da:

- 1) 2023ko irailaren 13ko aurreko ohiko bilkurako akta onestea.

Aldeko 10 (hamar) boto; Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

Ebazteko gaiak

2. Hezkuntza, Obra eta Zerbitzu eta Ingurumen Batzordea (energia-jasangarritasunerako).

2.1. José Antonio Sarabia Morenoren zehapen-espedientea, SanCan230724.

Aurrekariak:

1. 2023ko irailaren 13an, Ertzaintzak jakinarazi zuen zehapen-espedientea hasi ziola José Antonio Sarabia Morenori, arriskutsua izan daitekeen txakurra zeukalako AIEOn inskribatu gabe. SanCan230724.
2. José Antonio Sarabia Morenoren zehapen-espedienteak datu hauek jasotzen ditu:
 - a) Txakurrari behar bezalako arreta ez ematea, instalazio desegokian (etxebizitzako balkoia) eta baldintza desegokietan edukitzea eta bizilagunei eragozpenak sortzea (usainak, zaunkak...). Kalifikazioa: arau-hauste astuna. Urratutako aginduak: ATEUOren 22.2 A eta 22.2 G artikulua.
 - b) Animalia ez identifikatzea eta erregistratzea, eta, halaber, eguneratuta ez izatea eta agintari eskudunaren eskura animalia identifikatzeko agiri ofiziala. Kalifikazioa: arau-hauste arina. 9/2022 Legearen 38.1.k eta 4.2.e) artikulua.



- c) Albaitaritza-zerbitzu ofizial edo gaitu batek kirurgia bidez ez esterilizatuta edukitzea. Kalifikazioa: arau-hauste oso astuna. 9/2022 Legearen 38.3 m) eta 24.7 artikulua.
 - d) Jar daitekeen zehapena: metagarria edo txandaka.
 - Egotzitako I) egitateagatik 300,52 eta 2.404,05 euro arteko isuna, proposamena: 1.800.
 - Egotzitako II) egitateagatik 100 eta 3.000 euro arteko isuna, proposamena: 1.800.
 - Egotzitako III) egitateagatik 10.001 eta 100.000 euro arteko isuna, proposamena: 14.400.
 - e) Proposatutako zehapena: 18.000 (hemezortzi mila) euroko isuna.
 - f) Zehatzeko organo eskuduna: Udalbatza.
3. Espedientearen hasiera EAEko AIEOri, Guardiako ertzain-etxeari eta Lizarrako (Nafarroa) Haizea albaitaritza-klinikari jakinaraziko zaio.
- Jakinarazpenean 15 (hamabost) eguneko epea ematen zaio interesdunari, jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita, isun-zehapena bere borondatez ordaintzeko, zenbatekoa % 50 murriztuta, edo epe berean alegazioak egiteko eta egoki irizitako dokumentuak edo frogak aurkezteko. Eta jakinarazten da epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, espedientea hasteko ebazpen hori ebazpen-proposamentzat hartuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 64.2 f) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta ezarri beharreko zehapena 9.000 (bederatzi mila) eurokoa izango da. Emandako epea igaro da eta espedientea hasi zaionak ez du adierazitako zenbatekoaren % 50 ordaindu eta ez du alegaziorik egin.
4. Hezkuntza, Obra eta Zerbitzu eta Ingurumen Batzordean egindako proposamena.
5. Aplikatu beharreko araudia:
- 101/2004 Dekretua, ekainaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoa (aurrerantzean, 101/2004 Dekretua), martxoaren 24ko 44/2020 Dekretuak aldatua (aurrerantzean, 44/2020 Dekretua).
 - 6/1993 Euskal Legea, urriaren 29koa, EAEko animaliak babesteko (aurrerantzean, 6/1993 Legea).
 - 2/1998 Euskal Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa.
 - 50/1999 Legea, abenduaren 23koa, Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeari buruzkoa (aurrerantzean, 50/1999 Legea).
 - 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (aurrerantzean, 39/2015 Legea).
 - Oyón-Oiongo Udalaren Txakurrak edukitzea eta babestea arautzen duen ordenantza, 2017ko maiatzaren 31ko ALHAOn argitaratua.

Honako hau adostu da:

1) José Antonio Sarabia Moreno zehatza, arriskutsua izan daitekeen txakurra duelako AIEOn inskribatu gabe. SanCan230724, 18.000 (hemezortzi mila) euroko isunarekin, honako egitate hauengatik:

- I. Txakurrari behar bezalako arreta ez ematea, instalazio desegokian (etxebizitzako balkoia) eta baldintza desegokietan edukitzea eta bizilagunei eragozpenak sortzea



- (usainak, zaunkak...). Kalifikazioa: arau-hauste astuna. Urratutako aginduak: ATEUOren 22.2 A eta 22.2 G artikulua.
- II. Animalia ez identifikatzea eta erregistratzea, eta, halaber, eguneratuta ez izatea eta agintari eskudunaren eskura animalia identifikatzeko agiri ofiziala. Kalifikazioa: arau-hauste arina. 9/2022 Legearen 38.1.k eta 4.2.e) artikulua.
 - III. Albaitaritza-zerbitzu ofizial edo gaitu batek kirurgia bidez ez esterilizatuta edukitzea. Kalifikazioa: arau-hauste oso astuna. 9/2022 Legearen 38.3 m) eta 24.7 artikulua.

Aldeko (hamar) boto; José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

3. **Gizarte-ongizate, Berdintasun, Osasun eta Elkarte Batzordea.**
4. **Turismo, Gazteria eta Jai Batzordea.**
5. **Kultura, Euskara eta Kirol Batzordea.**
6. **Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea (Kontuen berezia)**

5.1. 2024 ekitaldirako ordenantza fiskalen aldatetaren behin-behineko onepena.

Alkate jaunak gobernu-taldeak ordenantza fiskalak aldatzeko egin duen proposamena azaldu du: Hiriko OHZren tasa 0,22tik 0,24ra igotzea proposatzen dugu. Gure asmoa urtero 0,02 areagotzea da, eta, horrela, legealdiaren amaieran, 0,3ko tasa izatea. Eta batzordeetan garatu zen hobarien proposamenarekin. Landa-eremuko OHZ 0,62 izatea proposatzen dugu. EJZren tasa % 0,9tik % 1,2ra igotzea proposatzen dugu. 0,9ko kuota oso onuragarria da enpresentzat. Proposamenarekin, herritarrek zerga horren eragina izango dute.

EIOZren tasari, oro har, % 3an utsiko zaio. Etxebizitza berria eraikitzeko, puntu bat handituko dugu, eta % 4 izango da. Tasak % 2 inguru igotzen dira, gutxi gorabehera biribiltzeko eta batzordeetan landutako dokumentuaren arabera.

Layana Río jauna (PSE-EE (PSOE)): Abstenitu egingo naiz, zenbait alderdi ez ditudalako ezagutzen.

Inclán Gil jauna (PP): Ez gaitu konbentzitzen EIOZren igoerak; gure ustez, birgaitzea sustatu behar da. Abstenitu egingo gara.

Tarragona Elejalde jauna (EAJ-PNV): Abstenitu egingo gara. Aurreko legealdian Bildu beti agertu zen ordenantzak aldatzearen aurka; aldiz, gu abstenitu egingo gara.

Aurrekariak:

1. 2024 ekitaldirako ordenantza fiskalak aldatzeko espedientea.
2. Aldaketak ordenantza fiskal hauei eragiten die:
 - I. 1. ordenantza fiskala, Ondasun higiezinaren gaineko zerga.
 - II. 2. ordenantza fiskala, Ekonomia-jardueren gaineko zerga.

Udabatzaren 2023 - X - 11ko bilkuraren akta;



- III. 3. ordenantza fiskala, Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.
 - IV. 6. ordenantza fiskala, Udal-jabari publikoaren erabilera pribatibo eta aprobetxamendu bereziagatik tasa.
 - V. 12. ordenantza fiskala, Establezimenduak irekitzeko lizentziaren tasa.
 - VI. 13. ordenantza fiskala, Hirigintza-lizentzien tasa.
 - VII. 14. ordenantza fiskala, El Espinar gunean udal-igerilekuaren zerbitzua emateagatik prezio publikoa (aurrerantzean, kirol-zerbitzuak).
 - VIII. 15. ordenantza fiskala, Kirol-, gizarte- eta kultura-instalazioak erabiltzeagatik prezio publikoa.
- 3. Hauek aplikatu behar dira: Toki Ogasunak arautzen dituen uztailearen 19ko 41/1989 Foru Arauaren 14., 15. eta 16. artikulua.
 - 4. Hauek aplikatu behar dira: Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d), 47.1, 49., 106. eta 107. artikulua.
 - 5. Organo eskuduna tokiko erakundearen udalbatza da, 7/1985 Legearen 22.2.d) artikulua araberak. Erabakia gehiengo soilez hartuko da, testu arauemaile beraren 47.1 artikulua ezartzen duen moduan.
 - 6. Kontu-hartzailearen txostena eta idazkaritzaren txostena jaso da.
 - 7. Kontu-hartzailearen txostenean ebaluatuko dira alaketaren eragin ekonomiko-finantzarioa eta aplikatu beharreko araudia eta, zehazki, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren printzipioak betetzen direla.
 - 8. Informazio Batzordean egindako proposamena.

Honako hau adostu da:

- 1) Behin-behinean onestea 2024 ekitaldirako ordenantza fiskalen aldaketa, igorritako proposamenarekin bat etorrira. Eta gainerako ordenantza fiskalen indarraldia luzatzea.
- 2) Erabakia jendaurrean jartzea, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailearen 19ko 41/1989 Foru Arauaren 15. eta 16. artikuluetan ezarritako modu eta epean.
- 3) Erabakia behin betikotzat hartzea, erreklamaziorik aurkeztzen ez bada. Behin betiko onespenez erabakia lege ezarritako modu eta epean argitaratzea.

Aldeko (bost) boto; José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion) eta Unai Bengochea Múgica (EH Bildu Oion).

Abstentzioak 5 (bost); José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

5.2. Bide publikoa mahai, aulki eta mahaitxoekin okupatzea arautzen duen ordenantza aldatzea.

Alkate jaunak ordenantza aldatzeko proposamenaren berri eman du; 6., 7. eta 8. artikuluei eragiten die.

Alkate jauna: Taberna guztiek baimendutakoak baino mahai gehiago dituzte. Araua errealitatera egokituko dugu. Nire ustez, irudi polita da asteburuetan plazako terraza



guztiak okupatuta ikustea. Ordutegiari dagokionez, Laudion eta Gasteizen araututakoari lotzen natzaio.

Layana Río jauna (PSE-EE (PSOE)): Ondo iruditzen zait, errealitatearen arabera arautzea delako, eta ez zehatzea.

Inclán Gil jauna (PP): Ostalaritzak lehentasuna izan behar du. Ados gaude.

Tarragona Elejalde jauna (EAJ-PNV): Abstenitu egingo gara, batzuen aisialdia eta besteen atsedena uztartzean pentsatu behar delako. Eta, gainera, ez da salaketarik izan terrazen gaietatik.

Aurrekariak:

- 1) Bide publikoa mahai, aulki eta mahaitxoekin okupatzea arautzen duen ordenantza.
- 2) Batzordeen saioetan aurkeztutako aldaketa-proposamena, 6., 7. eta 8. artikuluei eragiten diena.
- 3) Hauek aplikatu behar dira: Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.d), 47.1, 49., 65.2, 70.2, 106. eta 107. artikulua.

Honako hau adostu da:

1. Hasiera batean onestea Bide publikoa mahai, aulki eta mahaitxoekin okupatzea arautzen duen ordenantza aldatzea.
2. Jendurrean jartzea eta interesdunei entzunaldia ematea, gutxienez 30 eguneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten, eta, horretarako, iragarki-oholean eta Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean iragarki bat jartzea.
3. Erabakia behin betikotzat hartzea, erreklamaziorik aurkezten ez bada. Behin betiko onesp-en-erabakiak lege ezarritako modu eta epean argitaratzea.
4. Udal-ordenantzak eta -erregelamenduak testu osoa argitaratu ondoren sartuko dira indarrean, Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek udal-erabakiaren jakinarazpena jasotzen dutenetik 15 egun igarotakoan.

Aldeko 8 (zortzi) boto; José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

Abstentzioak 2 (bi): José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV) eta Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV).

5.3. Barriobusto eta Labraza kontzejuek Oión-Oiongo Udalaren zergetan parte hartzeko protokoloaren eranskina onestea.

Alkate jauna: eranskin hau Labrazako kontzejuak eskatuta idatzi da, ezaugarri bereziko ondasun higiezinak berariaz jasotzeko Barriobusto eta Labrazako kontzejuek parte hartzeko protokoloan.



Layana Río jauna (PSE-EE (PSOE)): Ondo legoke EIOZk Labrazako errotek eragingo duten inpaktuaren konpentsazio-mekanismo gisa funtzionatzea. Konpentsatzeko neurri ona izango litzateke. EIOZren kuotan parte hartzeko formulak bila daitezke. Ez dugu ahaztu behar herrigunetik bereziki hurbil daudela. Ez nago eranskinaren aurka.

Alkate jauna: Zergak Oyón-Oiongo Udalak biltzen ditu eta Batzarrek osorik jasotzen dute kuota, biltzen den ala ez gorabehera. Kobraezinak Udalak hartzen ditu bere gain. Ez dakizue plangintzaren izapidetzen zer-nolako lana eskatzen duen. Iradokitzen ari zarena, hau da, kontzejuetarako 10eko kuota eta udalerrirako 1ekoa, iraina iruditzen zait. Errotak jartzen badira, Labrazan jarriko direla kontuan hartuta, baliabide askoz ere handiagoak izango ditu beste udalerrri batzuen aldean, hala nola Ekora edo Moreda. Layana jaunaren botoa errespetatzen dut, baina, nire ustez, kalteak badaude, konpentsatuta geratuko dira.

Inclán Gil jauna (PP): Kontzejuen finantzaketaren arazoa konpontzea da kontua. Zenbat eta gehiago luzatu eta protokoloa ez sinatu, orduan eta okerrago. Barriobustoko Batzarra ados dago. Protokoloa finantzatzeko da.

Tarragona Elejalde jauna (EAJ-PNV): Alde gaude. Hitzarmena onuragarria da Batzarretarako. Erroten gaia aparte doa.

Layana Río jauna (PSE-EE (PSOE)): Paisaia-inpaktua izugarria izango da. Aurkako botoa emango dugu.

Aurrekariak:

- 1) Erabakia, 2023ko maiatzaren 25eko bilkuran hartutakoa, Barriobusto eta Labrazako kontzejuak Oyón-Oiongo Udalaren zergetan parte hartzeko protokoloa onesten duena. Horren laugarren puntua Eduardo Terroba Cabezón alkate jauna gaitzea zen, gaur-gaurkoz alkate izateari utzi baitio.
- 2) Erabakia, 2023ko uztailaren 18ko bilkuran hartutakoa, Barriobusto eta Labrazako kontzejuak Oyón-Oiongo Udalaren zergetan parte hartzeko protokoloa aldatzea onesten duena.
- 3) 2/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 3.4 artikulua, irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluarena, Ondasun higiezinaren gaineko zergaren foru-arauaren testu betegina onesten duena.
- 4) Aipatutako artikuluan xedatutakoaren arabera, ezaugarri bereziko ondasun higiezinak erabilera espezializatuko multzo konplexu bat dira, lurzoruz, eraikinez, instalazioz eta urbanizazio- eta hobekuntza-obrez osatua, eta, beren izaera bateratuagatik eta funtzionatzeko behin betiko lotuta egoteagatik, katastro-ondorioetarako ondasun higiezin bakartzat hartzen da. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinak hartzen dira, aurreko paragrafoaren arabera, honako multzo hauetan daudenak: a) Energia elektrikoa eta gasa ekoizteko eta petrolioa fintzeko direnak, eta zentral nuklearrak. b) Presak, ur-jauziak eta urtegiak, ohea edo ontzia barne, ureztatzeko bakarrik direnak izan ezik. c) Autobideak, errepideak eta ordainleku-tunelak. d) Aireportuak eta merkataritza-portuak.
- 5) Labrazako kontzejuak ezaugarri bereziko ondasun higiezinak berariaz jasotzeko eskatuta idatzitako Barriobusto eta Labrazako kontzejuak parte hartzeko protokoloaren eranskina.
- 6) Batzordeen saioan egindako proposamena.



Honako hau adostu da:

- 1) Labrazako kontzejuak eskatuta idatzitako Barriobusto eta Labrazako kontzejuak parte hartzeko protokoloaren eranskina onestea, eta berariaz jasotzea OHZren erroldari dagokion zenbateko osoan (bai landa-eremukoan bai hirikoan, bai eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinetan) kontzeju-mugartean kokatutako ondasunei dagokien bilketa egiteko.
- 2) Alkate jauna, José Manuel Villanueva Gutiérrez, gaitzea, beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko, eta, berariaz, protokoloa jasotzen duen dokumentua.
- 3) Erabaki honen berri ematea eta protokoloaren kopia igortzea Arabako Toki Administrazio eta Finantzen Lurralde Kontseiluari eta Barriobusto eta Labrazako administrazio-batzarrei.

Aldeko 9 (bederatzi) boto; José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP), eta Rosa Vázquez Iglesias (PP).

Aurkako 1 (bat) boto; Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

5.4. 5/2023 espedientea, aurrekontua aldatzekoa.

Alkate jauna (aurrekontuko kredituak aldatzeko proposamenaren berri eman du): aurrekontua honetarako aldatuko da: aurreko Udalbatzak eskatutako 23/24 Tokiko Enplegu Plana finantzatzeko, Udalaren Elvillarreko CRAD zerbitzua, areto balioaniztunerako altzariak, Arabako Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko 2016ko uztailearen 13ko lankidetzaz hitzarmena ekonomia-jardueren gaineko zergaren eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren ikuskapenentarako, eta beste gastu batzuk. Diruzaintzako soberakinaren eta Eusko Jaurlaritzaren enplegu-planerako dirulaguntzarekin finantzatzen da.

Aurrekariak:

1. 5/2023 espedientea, aurrekontua aldatzekoa. 23/24 Tokiko Enplegu Plana, EJZ ikuskatzeko AFArekin hitzarmena, areto balioaniztunaren ekipamendua eta beste gastu batzuk. Aurrekontu-aldaketa hori transferentzien araubidera, gaikuntzara eta kreditu osagarrira egokitzen da. Kreditu-aldaketaren zenbatekoa 117.501,82 eurokoa da, eta diru-sarreraren eta gastuen egoeren aldaketak espedientean zerrendatu dira.
2. 3/2004 Foru Arauaren (Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoa) 28. 34. artikulua eta 2023ko ABUAren 13. artikulua aplikatu behar dira.
3. Kontu-hartzaitzak 2023ko urriaren 6an egindako txostena jaso da.
4. Informazio Batzordearen saioko proposamena.

Honako hau adostu da:

1. Onestea 5/2023 espedientea, aurrekontua aldatzekoa. 23/24 Tokiko Enplegu Plana, EJZ ikuskatzeko AFArekin hitzarmena, areto balioaniztunaren ekipamendua eta beste gastu batzuk. Kreditu-aldaketaren zenbatekoa 117.501,82 eurokoa da, eta

Udabatzaren 2023 - X - 11ko bilkuraren akta;



diru-sarreraren eta gastuen egoeren aldaketak espedientean zerrendatu dira. Erreferentzia alfanumerikoa: PresuGen2023_ModCred5.doc.

2. Espedientea jendaurrean jartzea otsailaren 9ko 3/2004 Arauan (Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoa) ezarritako epeetan.
3. Onesteko erabakia behin betikotzat hartzea, alegazioak aurkezten ez badira. Alegaziorik badago, 1 (bat) hilabeteko epean ebaztea.
4. Espedientea behin betiko argitaratzea eta Arabako Foru Aldundiari horren berri ematea.

Aldeko 10 (hamar) boto; Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

5.5. HAPOn 13. aldaketa egiteko herritarrek parte hartzeko programa onestea, OY-3 sektoreko lurzoru urbanizagarria desklasifikatzeari dagokionez.

Aurrekariak:

1. Oyón-Oiongo Udalaren Osoko Bilkurak 2023ko maiatzaren 24ko saioan HAPOn 13. aldaketa puntuala idaztea eta sustatzea erabaki zuen, lurzoru urbanizagarriko OY-37 eremua desklasifikatzeko.
2. Aplikatu beharreko araudia:
 - a. 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, 108. artikulua. Plan orokorrean herritarrek parte hartzeko programa.
 - b. 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena. 3. artikulua, 1. eta 2. apartatuak. Herritarren parte-hartzea lurralde- eta hirigintza-plangintza izapidetzean.
3. HAPOn 13. aldaketa egiteko herritarrek parte hartzeko programa, OY-3 sektoreko lurzoru urbanizagarria desklasifikatzeari dagokionez, aldaketa idatzi duen taldeak aurkeztua.

Honako hau adostu da:

- 1) Onestea HAPOn 13. aldaketa egiteko herritarrek parte hartzeko programa, OY-3 sektoreko lurzoru urbanizagarria desklasifikatzeari dagokionez.
- 2) HAPOn 13. aldaketa egiteko herritarrek parte hartzeko programaren laburpen bat argitaratzea, OY-3 sektoreko lurzoru urbanizagarria desklasifikatzeari dagokionez.



Aldeko 10 (hamar) boto; Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

5.6. Oyón-Oiongo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 11. Aldaketa Puntuala. Antolamendu xehatuko eremua, oinarritzko azpiegituren eremua eta hondakin solidoak (H.4), ez arriskutsuak eta inerteak ezabatzeko azpiegituren zerbitzuen eremua zehaztu gabeko kategoriako lurzoru urbanizaezinean.

Aurrekariak:

- 1) Oyón-Oiongo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 11. Aldaketa Puntualaren espedientea. Antolamendu xehatuko eremua, oinarritzko azpiegituren eremua eta hondakin solidoak (H.4), ez arriskutsuak eta inerteak ezabatzeko azpiegituren zerbitzuen eremua zehaztu gabeko kategoriako lurzoru urbanizaezinean, Ecoreinares SL enpresak sustatua.
- 2) Espedientea hasiera batean onetsi zen 2023ko martxoaren 15ean egindako bilkuran, eta jendaurrean egon da 2023ko apirilaren 12ko ALHAOn (43. zk.) 009800 iragarkia argitaratu zenetik, 45 (berrogeita bost) egun balioduneko epean. Halaber, iragarkia jarri da udal-oholean eta *El Correo* egunkarian, 2023ko apirilaren 14an.
- 3) Ez dago eragin linguistikoari buruzko txostenik.
- 4) Ez dago genero-inpaktuari buruzko txostenik.
- 5) Jendaurrean jarritako epean (dagoeneko amaitu da) ez da erreklamaziorik edo errekurtsorik aurkeztu.

Honako hau adostu da:

1. Behin-behinean onestea Oyón-Oiongo Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren 11. Aldaketa Puntualaren espedientea. Antolamendu xehatuko eremua, oinarritzko azpiegituren eremua eta hondakin solidoak (H.4), ez arriskutsuak eta inerteak ezabatzeko azpiegituren zerbitzuen eremua zehaztu gabeko kategoriako lurzoru urbanizaezinean, Ecoreinares SL enpresak sustatua.
2. Espedientea organo eskudunari aurkeztea, azter dezan eta behin betiko onesteari buruzko ebazpena eman dezan.

Aldeko 10 (hamar) boto; Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

Tarragona Elejalde jauna (EAJ-PNV): Horrek ekarriko duen enplegu-sorreraren alde gaude.



5.7. “Eraikin urdina” eraikinaren erabilera Fondo Formación Euskadi SLL enpresari lagatzea, profesionaltasun-ziurtagirien ikastaroak eman ditzan.

Aurrekariak:

1. Oyón-Oiongo Udalak, 1999ko urriaren 29ko bilkuran, “Eraikin urdinaren” erabilera Arabako Errioxako Kuadrillari lagatzea erabaki zuen, lanerako lanbide-prestakuntzako zentro baterako solairuetan (beheko solairua erabilera partekatuarekin eta erdisotoa erabilera eskusiboarekin).
2. Oyón-Oiongo Udalak, 2017ko otsailaren 15ean egindako bilkuran, erabaki zuen Fondo Formación Euskadi SLL baimentzea “Eraikin urdina” lagatzeko Foruen pasealekuan dagoen lanerako lanbide-prestakuntzako zentro baterako solairuetan (beheko solairua erabilera partekatuarekin eta erdisotoa erabilera eskusiboarekin), gutxienez 3 urterako, adierazitako profesionaltasun-ziurtagiriak emateko eta Lanbidek dagokion titulazioa homologatzeko.
3. Oyón-Oiongo Udalak, 2020ko otsailaren 12an egindako bilkuran, erabaki zuen Fondo Formación Euskadi SLL baimentzea “Eraikin urdina” lagatzeko Foruen pasealekuan dagoen lanerako lanbide-prestakuntzako zentro baterako solairuetan (beheko solairua erabilera partekatuarekin eta erdisotoa erabilera eskusiboarekin), gutxienez 3 urterako, adierazitako profesionaltasun-ziurtagiriak emateko eta Lanbidek dagokion titulazioa homologatzeko. Erabilera-lagapena adierazitako profesionaltasun-ziurtagiriak emateko eta Lanbidek dagokion titulazioa homologatzeko da. Lagapenak baimena ematen dio lagapen-hartzaileari Oyón-Oiongo Udalak sustatutako beste prestakuntza-ekintza batzuk egiteko, baldin eta Fondo Formación Euskadi SLL adjudikazioduna bada. Erabilerearen lagapena Oyón-Oiongo Udalak ezarri dituen edo etorkizunean adostu ditzakeen beste erabilera batzuekin bateragarria izango da, eta erabilera-lagapenak elkarren artean bateratuko dira. Fondo Formación Euskadi SLL enpresak ezingo ditu lagatako instalazioetan bestelako jarduerarik egin Oyón-Oiongo Udalaren berariazko baimenik gabe, eta ez-betetze hori akordio hau baliogabetzeko arrazoia izango da, inolako ordainik jaso gabe.
4. Toki-erakundearen antolaketa, jarduera eta araubide juridikoaren araudiaren 82.3 eta 83. artikuluetan ezarritakoa aplikatu behar da.

Honako hau adostu da:

1. Alkateak gai hau gai-zerrendan sar dezan berrestea; gaia ez zaio alde zurririk kontsultatu informazio-batzorde eskudunari. Gaia urgentzia-arrazoiengatik sartuko da, espedientearen izapidetzea arintzeko.
2. Baimentzea Fondo Formación Euskadi SLL enpresari “Eraikin urdina” lagatzeko Foruen pasealekuan dagoen lanerako lanbide-prestakuntzako zentro baterako solairuetan (beheko solairua erabilera partekatuarekin eta erdisotoa erabilera eskusiboarekin), gutxienez 3 urterako, adierazitako profesionaltasun-ziurtagiriak emateko eta Lanbidek dagokion titulazioa homologatzeko. Erabilera-lagapena adierazitako profesionaltasun-ziurtagiriak emateko eta Lanbidek dagokion titulazioa homologatzeko da.
3. Lagapenak baimena ematen dio lagapen-hartzaileari Oyón-Oiongo Udalak sustatutako beste prestakuntza-ekintza batzuk egiteko, baldin eta Fondo Formación Euskadi SLL adjudikazioduna bada.

Udabatzaren 2023 - X – 11ko bilkuraren akta;



4. Erabileraren lagapena Oyón-Oiongo Udalak ezarri dituen edo etorkizunean adostu ditzakeen beste erabilera batzuekin bateragarria izango da, eta erabilera-lagapenak elkarren artean bateratuko dira.
5. Fondo Formación Euskadi SLL enpresak ezingo ditu lagatako instalazioetan bestelako jarduerarik egin Oyón-Oiongo Udalaren berariazko baimenik gabe, eta ez-betetze hori akordio hau baliogabetzeko arrazoia izango da, inolako ordainik jaso gabe.
6. Erabilera-lagapenari buruzko erabaki honen berri ematea Fondo Formación Euskadi SLL enpresari, Lanbideri eta Arabako Errioxako Kuadrillari.

Aldeko 10 (hamar) boto; Jose Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Leire Martínez Flores (EH Bildu Oion), Eva María Frías Del Val (EH Bildu Oion), Leire Saenz Verano (EH Bildu Oion), Unai Bengoechea Múgica (EH Bildu Oion), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Sergio Rozas Núñez (EAJ-PNV), Eduardo Inclán Gil (PP), Rosa Vázquez Iglesias (PP) eta Oscar Layana Río (PSE-EE (PSOE)).

Azken puntua) Galde-eskeak.

Layana Río jauna (PSE-EE (PSOE)) jaunak Ekiolaren araubideari buruz galdetu du; hain zuzen, energia-autokontsumoari eta Ekiolaren araubide kooperatiboari buruz.

Alkate jauna: Planaren izapidetzea oso berde dago; gaia aztertuko dut eta erantzungo dizut. Eguzki-energiaren araubidearen berri eman du, Arroyo I pilotalekuan plakak jartzeko obrak direla eta.

Layana Río jauna (PSE-EE (PSOE)): Sociedad Deportiva Oyonesaren hitzarmenagatik galdetu du.

Alkate jauna: Orain arte Sociedad Deportiva Oyonesak eta pilotak bakarrik zuten hitzarmena. Orain, Oyón-Oiongo kirol-klub guztiakin sinatuko ditugu: pilota, futbola, eskubaloia. Aurreikusitako finantzaketa 40 eurokoa da Oyón-Oiongo haur bakoitzeko. Eta, gutxienez, 2.000koa ezarri da klubeko, haur-kopuruagatik zenbateko horretara iristen ez bada. Haurrek kirola egin dezaten finantzatzen lagundu nahi dugu, eta ez klubek beste jarduera batzuk.

Tarragona Elejalde jauna (EAJ-PNV): Jar daiteke edukiontzi bat ortu sozialetan? Ortutako hondakinak ezin dira kopostagailuetara eraman.

Alkate jauna: Kuadrillako ingurumen-teknikari batekin hitz egin dugu eta jakinarazi digu ortuen erabiltzaileek kaxoi bat sor dezaketela konposta egiteko. Udalak edukiontzi bat jartzeak ez du zentzurik.

Tarragona Elejalde jauna (EAJ-PNV): Orturen bat badago libre, berriro atera daitezke.

Alkate jauna: Uste dut ez dagoela jenderik itxarote-zerrendan. Kontsulta egingo dut, eta ordetzorik ez badago, berriro deituko dugu...



Ayuntamiento de OYÓN-OION
OYÓN-OYONgo Udala

Jorratzeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:05ean (bilkura CCXXXII urteko Mahaxteko hemeretzigarrenaren, bigarren hamarkadaren bederatzigarren eguneko 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2023ko urriaren 25ean.
Udaleko idazkaria:

Alkatetzak O. E.:

Udabatzaren 2023 - X - 11ko bilkuraren akta;